

opusdei.org

**Nire egoeran dauden
batzuek gehiago
begiratzten diote
galdu dutenari,
oraindik
daukatenari baino**

Gure arteko elkartasuna
minusbaliatu berrientzat
beharrezkoa da

2004 Eka 8

**Aurkitu al diozu zentzurik egoera
honi?**

Klinikan egondako bederatzi hilabete haietan, istripua izan ondoren bururatu zitzaidan ideia bat sustraituz joan zen nigan: itxuraz nire egoera hain nabarmen, murriztaile eta menpeko izan arren, ziur nengoen nire bizitzako helburu garrantzitsuenak bete ahal izango nituela. Esate baterako, ordu arte bultzatzen ninduten amets-asmoak, batez ere azken hogeitazietan, Opus Deiko kide egin nintzenetik.

Ezinezkoa badirudi ere, ba al dago istripuak aldatu ez duen zerbait?

Zalantzarik gabe, lepoaren hausturak eta haren ondorioak ez zuten nire Jainko seme egoera aldatu, eta hori da, hain zuzen ere, nire balio eta nire duintasun pertsonalaren erroa.

Jesukristoren apaiz irauten nuen eta, gainera, berehala, ospitalea utzi baino lehen, ministeritza horretan jardun ahal izan nintzen. Nire arazo guztiak problema mekaniko

batzuetan laburbiltzen ziren,
benetan irtenbide zaila bazuten ere.

Beraz, lehenengo une haietan,
aurrera begiratzuz, garbi ikusten
nituen nire bizitzako gauza
garrantzitsuenak, lehen bezala:
hortxe zeuden, aldaezinak, bere
balio osoarekin, neronek baztertu
nahi ez banituen. Egonezinik
nengoen, ospitaleko arreta noiz
utziko. Geroko, klinikatik
irteterakoan, batez ere anaiak nituen
euskarri eta, bestalde, baliabide
teknikoak ere, gero eta
aurreratuagoak.

**Ba al dago tetraplegikoen
elkarterik? Kontaktuan al zaude e-
mailen bitartez?**

Normala denez, berehala izan nituen
harremanak zenbait minusbaliatu
taldeekin. Ordenagailuaren bitartez,
talde horiek zenbait forotan biltzen
dira, elkarri esperientziak emanaz.
Gure artean elkartasun handia dago,

eta elkartasun hau beharrezkoa da minusbaliatu berrientzat batez ere, batzuetan lur jota sentitzen baitira, eta batzuk ez diote bizitzari zentzurik aurkitzen.

Ordenagailuan murgilduta ikusten zaitut. On egin al daiteke jendeari kable bidez?

Egia esan, klinikatik irten ondoren, dena uste baino errazago suertatu zitzaidan. Sobre la marcha, istripuaren ondorioz izan nituen lehenengo burutapen eta esperientzien liburua, bukatu nuen. Interneten munduan murgildu nintzen: horrela, nire kontaktu pertsonalen kopurua gehitu egin zen; kontaktu birtualak noski, baina apostolutza harremanentzat gai, beti ere. Gainera, web orrialde batean – FLUVIUM: <https://www.fluvium.org/>– jende askori hitzez esan nahi niena, idatziz, era iraunkor batean, jarri nuen. Aldizkariak –NOVEDADES

FLUVIUM: <https://www.fluvium.org/textos/novedades.htm>– inoiz
pentsatuko ez nuen harrera ona izan
du. Berriz ere, San Josemariak esaten
zuen betetzen ari da: “Egizue amets,
eta motz geldituko zarete”

**Luis de Moya, sendagile, apaiza eta
tetraplegikoa. Eutanasiari buruz
baduzu zer esatekorik.**

Unibertsitateko eguneroko lanera
itzultzean eta, batez ere, Sobre la
marcha argitaratu ondoren –lau
hizkuntzatar itzulita dagoeneko–
komunikabideetan azaldu nintzen
zenbait aldiz. Lehenbiziko alditan
irakasle tetraplegiko bat eskolak
ematera itzuli zela azpimarratu nahi
zuten. Gero eutanasia dela eta, nire
egoeran zeuden batzuk eskatu egiten
baitzuten. Horiek, segur aski, gehiago
begiratzen diote galdu dutenari,
oraindik daukatenari baino eta,
batez ere, Jainkoaren arabera biziz –
egoera horretan ere– itxaron

dezaketenari. (ikus <https://www.muertedigna.org/> eta <https://www.luisdemoya.org/>).

pdf | document generated
automatically from <https://opusdei.org/eu-es/article/nire-egoeran-dauden-batzuek-gehiago-begiratz-en-diote-galdu-dutenari-oraindik-daukatenari-baino/>
(2026 Ots 21)